



PRENTSA-OHARRA

## “Kontzertuan eta irekita” ekimenak musika-paisaia askotarikoa eskainiko du uda honetan, poesia, hitz mintzatua eta herrialde ezberdinetako herri-musika eta guzti

- Kontzertuak uztailleko azken asteburuan eta abuztuko lehenengoan izango dira, uztailaren 26an eta 27an eta abuztuaren 2an eta 3an, 20:00etan.
- Musika-programa bizi honetan, musika-proposamen oso heterogeneoak batuko dira, ikuspegi artistiko diferentziala eskaintzen dutenak; hala nola, Fanny Desk-en musika klasikoaren eta modernoaren arteko fusioa, Feten Feten-en freskotasuna, Antton Aranburu gasteiztarraren musika-paisaia edo Rebeca Jimenezen eta Benjamin Pradoren poesiaren eta musikaren uztarketa (zikloa itxiko dutenena).
- Publiko orokorrak sarrerak eskuratu ahal izango ditu 10 €-ren truke eta abonamenduak 30 €-ren truke, [www.abiertoporconcierto.eus](http://www.abiertoporconcierto.eus) web gunean, uztailaren 2tik aurrera.

**Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 2an.- Santa Maria Katedrala Fundazioak** gaur goizean aurkeztu du “Kontzertuan eta irekita” ziklo musikal ezagunaren programazioa. Programa artistiko hori **Santa Maria Katedraleko** elizpean egiten da, eta Vitoria-Gasteizko proposamen beteranoa ez ezik, hiriarentzat erakarpen kulturala ere bada. Santa Maria Katedrala Fundazioaren apustua eta konpromisoa da, eta horren kolaboratzaile nagusia **Vital Fundazioa** da.

2024an, kontzertuak **20:00etan** hasiko dira, eta ostiral eta larunbatetan izango dira: **uztailaren 26an eta 27an eta abuztuaren 2an eta 3an.**

Ekimena aurkezteko ekitaldia gaur goizean egin dute Santa Maria elizpean, eta, bertan, honako hauek izan dira: **Ana del Val, Arabako Foru Aldundiko Kulturako** diputatua; **Arantxa Ibañez de Opacua, Vital Fundazioko** zuzendaria; eta **Jon Lasa, Santa Maria Katedrala Fundazioko kudeatzailea**. Bertan izan da, baita ere, **Joseba Cabezas**, “Kontzertuan eta irekita” antolatzen laguntzen duen **Jazzargia Elkarteko** arduraduna.

**FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA**

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / [www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus)

**Prentsa / Prensa:** Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - [comunicacion@atedralvitoria.eus](mailto:comunicacion@atedralvitoria.eus)

## **Aniztasun artistikoa banderaren arabera daraman musika-proposamena**

Uztailaren 26ko (ostirala) lehen kontzertua **Fanny Desk** bikoteak eskainiko du. Proposamen artistiko paregabe horrek musika klasikoa eta modernoa batzen ditu. Erromantizismoko Lied alemanaren errepertorioa interpretatzen dute, melodia klasikoari eusten dioten moldaketekin baina beste estilo eta garai batzuetara ere eramaten dute. Emanaldian, musika eta hitz mintzatua konbinatuko dituzte, publikoarekin elkarrizketa sortuz eta egungo gaiak umorez landuz.

Uztailaren 27rako, larunbata, programatutako hurrengo kontzertuak musika tradizionala eta herrikoa izango ditu protagonista, **Feten Feten-i** esker. Bikote sortzaile honek instrumentu konbentzionalak eta ezohikoak erabiltzen ditu musika freskoa, dibertigarria eta dantzagarria eskaintzeko. Ibilaldi bat egingo da hainbat lurretan barrena, Balkanetako oihartzunak, manoucheen ezaugarriak, japoniar oroitzapenak eta itsasoko soinuak gehituz.

Kontzertuan eta irekita ekimenak abuztuaren 2an, ostirala, jarraituko du, **Antton Aranburuk**, Busturian (Bizkaia) jaiotako eta Vitoria-Gasteizen bizi den musikari eta artista polifazetikoak, hurbilduko digun musika-paisaiaren bitartez. Gasteizen, MAILUK musika-eskola sortu du. Musikarekiko, antzerkiarekiko eta literaturarekiko duen pasioa aztertzen du “abestien artisau” honek, eta gitarra, ipuinen idazketa eta haurrentzako antzezlan musikalak bezalako diziplinak jorratzen ditu.

Azkenik, **Rebeca Jimenez eta Benjamin Pradok** amaiera emango diote musika-ziklo honi abuztuaren 3ko (larunbata) arratsaldean, “Agitado y Mezclado” izeneko kontzertu intimoaren bidez. Hain zuzen ere, poesia eta musikaren arteko fusioa da, sorpresaz beteriko bidaia emozionala eta Espainiako, Estatu Batuetako eta Latinoamerikako musika estiloen fusioak. Hitzak berebiziko garrantzia izango du, poemak eta abestiak uztartuz istorio liluragarria sortzeko.

## **Sarrerak eta abonamenduak eskuratzea**

Abonuak salgai egongo dira uztailaren 2tik 6ra, eta hilaren 7tik aurrera kontzertuetarako sarrerak eros ahal izango dira. Publiko orokorrak 10 €-ren truke eros ahal izango ditu sarrerak eta abonauk 30 €-ren truke, [www.abiertoporconcierto.eus](http://www.abiertoporconcierto.eus) web orrialdean.

Fundatzaileen Zirkuluko bazkideek 6 €-ren truke lortu ahal izango dituzte sarrerak eta lau kontzertuetarako abonua 20 €-ren truke.

Informazioa gehiago:

Elena Benito

[comunicación@catedralvitoria.eus](mailto:comunicación@catedralvitoria.eus)

**FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA**

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / [www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus)

**Prentsa / Prensa:** Elena Benito - T. +34 94 403 40 50 - Ext.: 2501 - [comunicacion@catedralvitoria.eus](mailto:comunicacion@catedralvitoria.eus)